



## PROZESU ZUZENBIDEA

### P ALDERDIAK PROZESU ZIBILEAN: GAITASUNA, LEGITIMAZIOA, OSAERA ETA POSTULAZIOA

*Ikusko* ORDEÑANA GEZURAGA  
Sara ARRUTI BENITO

**AURKIBIDEA:** I. Alderdien aurkezpena. II. Hirugarren prozesala. III. Alderdien gaitasuna orokorrean. IV. Alderdi izateko gaitasuna. 4.1 Pertsona fisikoen gaitasuna. 4.2 Pertsona juridikoen gaitasuna. 4.3 Beste kasu batzuk V. Gaitasun prozesala. 5.1 Pertsona fisikoaren jarduera. 5.2 Pertsona juridikoaren jarduera. 5.3 Beste batzuen ordezkapena. VI. Kasu bereziak. VII. Gaitasunaren tratamendu prozesala. VII. Legitimazioa. 8.1 Kontzeptua. 8.2. Motak. 8.2.1 Legitimazio arrunta. 8.2.2 Ezohiko legitimazioa edo berezia. 8.2.3 Tratamendu prozesala. IX. Alderdien aniztasuna edo pluralitatea. 9.1 Kontzeptua. 9.2 Sailkapena. 9.2.1 Beharrezko alderdi aniztasuna (litiskonsortzioa edo auzi-kidetza). 9.2.1.1 Jatorria. 9.2.1.2 Motak. 9.2.1.3 Ondorioztatutako prozesuaren ezaugarriak. 9.2.2 Balizko alderdi aniztasuna. 9.2.2.1 Kasik beharrezkoa den litiskonsortzioa. 9.2.2.2 Partaidetza litiskonsortzuala. 9.2.2.3 Partaidetza itsaskor bakuna. X. Eragindako partaidetza kasuak. XI. Prozesu oinordetza. 11.1 Pertsona fisikoaren heriotza. 11.2 Pertsona juridikoren fusioa edo absortzioa. 11.3 Gauza liskartsuaren inter vivos esku-aldaketa. XII. Postulazio prozesala. XIII. Ordezkaritza prozesala. 13.1 Kontzeptua eta ezaugarriak. 13.2 Ahalorde motak. 13.3 Betekizunak. 13.4 Boterearen hasiera, garapena eta iraungitzea. 13.5 Ordezkaritzaren beharrezkotasuna eta salbuespenak. 13.6 Prokuradorearen funtzio berriak. XIV. Defentsa teknikoak. XV Abokatuaren edo prokuradorearen beharrezkotasun eza eta alderdien babesgabezia ekiditea. XVI. Kontuen zina. XVII. Administrazioa alderdi bezala. XVIII. Ministerio Fiskala prozesu zibilean. 18.1 Kontzeptua eta ezaugarriak. 18.2 Prozesu zibilean parte-hartzea.

#### I. Alderdien aurkezpena

Lehenik eta behin, alderdi eta posizio kontzeptuak zehaztu eta desberdindu behar ditugu. Izan ere, prozesu orotan, behartuta bi posizio izango ditugu (aktiboa eta pasiboa), hau da, norbaitek beste baten kontra zerbait eskatu behar du. Ideia honi posizioen dualtasuna edo posizio bikotasun printzipioa deritzo, eta gatazkan dauden interes kontrajarriak zehazten ditu. Hala ere, posizioetariko bakoitzean edo bietan, interes bat baino gehiago –alderdi bat baino gehiago, alabaina- egon daiteke, hots, posizioak behartuta bi eta bakarrik bi dira, baina horietako bakoitzean alderdi bat baino gehiago egon daiteke.

Normalean posizio bakoitzean alderdi bat dago (demandatzailea aktiboan eta demandatua pasiboan), hala ere, posizio batean edo bietan alderdi bat baino gehiago egon daiteke. Nor da alderdi demandatzailea? Espainiar Konstituzioko (aurrerantzean, EK) 24. artikuluko eskubidea egikaritzuz, uzia organo jurisdikzional baten aurrean jartzen duen pertsona edo pertsonak. Bestetik, alderdi demandatua dugu, posizio pasiboan dagoen norbanakoa edo norbanakoak, hau da, uzia zuzentzen zaion pertsona edo pertsonak. Beraz, alderdi prozesala uzi bat organo jurisdikzional baten aurrean jartzen duen pertsona edo pertsona multzoari (demandatzaileak) eta uzi hori jartzen den pertsona edo pertsonen kontra (demandatuak) osatutako taldeari deituko diogu. Hau da, babes-judiziala eskatzen duen pertsona eta babes hori zeinen kontra eskatzen den hartuko dugu kontuan.



## I. Irakasgaiak

Normalean, alderdi prozesalak gatazka sorrarazi duen harreman juridiko materialaren titulartasuna duten subjektuak izango dira. Hala ere, hau ez da beti horrela izango, prozesu baten honetan eztabaidatzen ari den harreman juridikoaren titularrak ez direnak aritu baitaitezke. Horrengatik, alderdi materialak eta prozesalak desberdinu behar ditugu. Alderdi materialei so eginez, kontratu baten alderdiak izango dira (hau da, kode zibil edo merkataritza kodean xedatzen direnak). Alderdi prozesalak aldiz, lehen azaldu dugun moduan, prozesu batean diharduten norbanakoak izango dira (demandatzaile eta demandatua alegia). Gehienetan bi alderdi mota hauek bat etortzen dira, hau da, pertsona berdinek osatzen dute alderdi materiala eta alderdi prozesala, nahiz eta, ikusiko dugun bezala, beti horrela ez izan.

Alderdien identifikazioari dagokionez, egoera normalean, demandatzaileak berak izango du betebeharrak hori, eta epaiketako alderdiak demandatzaileak berak identifikatuko ditu demanda jartzerakoan. Demandatzailearen identifikazioak ez dakar arazorik, berak bere burua identifikatu behar duelako demanda jartzean. Demandatua identifikatzeak arazoak ekar ditzake, ordea, demandatzaileak pertsona hori nor den jakiteko beharrezko informazioa eska dezakeelarik, legearekin bat (aurretiazko diligentziak deritzenen bitartez). Ezohiko egoera bezala, azaldutakoari ñabardura bat egin behar diogu: zenbait kasutan, bai demandatzaile, zein demandatu bezala, prozesura beranduago sartzeko aukera dago eta kasu horietan ez dira alderdi bezala identifikatuta egongo hasieratik. Kontu honetan beranduago sartuko gara.

Azkenik, adierazi behar dugu, posizio aktiboan dagoen demandatzaileak eta posizio pasiboan dagoen demandatuak izendapen desberdinak jaso ditzaketela prozesuaren fasearen edo jardueraren arabera. Horrela adibidez, demandatzaileari apelatzaile, exekutatzaile edota errekurritzaile dei dakiok, eta kasu berean, demandatuari, apelatu, exekutatu, edo errekurritu. Zigor prozesuan akusatatu eta akusatzaile kontzeptuk erabiltzen ditugu, baina prozesu zibilean kontzeptu horiek ez dira baliozkoak, honetan ez delako *ius puniendi*aren egikarritza burutzen.

## II. Hirugarren prozesala

Hirugarren prozesala, alderdi ez den edozein pertsona juridiko edo fisiko izango da. Hau da, prozesuan parte hartzen ez dutenei hirugarrenak deritze. Hori bai, gauza ezberdina da hirugarrenak prozesuarengandik eratorritako eraginak jasatea edo ez, baina horrek ez dakar automatikoki pertsona hori prozesuko alderdi bihurtzea. Beraz, alderdi bezala barne hartu ezin ditugun horiek, hirugarrenak izango dira, lekukoak edo adituak kasu. Epailea bera ez da alderdi, agintaria da eta beraz, baita ere hirugarrena.

## III. Alderdien gaitasuna orokorrean

Gatazka zibil batean alderdiak zein izan daitezkeen aztertzeko, lehenik eta behin bi kontzeptu desberdinu behar ditugu: alderdi izateko gaitasuna eta gaitasun prozesala. Alderdi izateko gaitasunari dagokionez, guztiok daukagu, orokorra den ahalmena da, bizirik gauden pertsona guztiek (adingabeak, burua galdutakoak,...) baitugu epaile batek, legearekin bat, gure interesak aldeztuko aukera. Gaitasun prozesala berriz, epaitegi-tara joateko eta horietan aritzeko ahalmena da, horretarako 18 urte edo gehiago izatea eta sententzia bidez ezgaitua ez egotea galdatzen da. Betekizun horiek betetzen ez dituen norbanakoak ez du gaitasun prozesalik edukiko, eta epaitegi aurreko jardueran norbaitek ordezkatu beharko du.



Aurrekoa aintzat hartuz, beraz, alderdien gaitasuna zuzenbide zibileko gaitasunaren parekoa da. Gaitasun prozesala, aldiz, jarduteko gaitasunaren parekoa.

### IV. Alderdi izateko gaitasuna

Honaino helduta, nor izan daiteke prozesu baten alderdi? Hau da, nor izan daiteke prozesutik eratortzen diren eskubide, betebeharrak eta zamen titular? Bestela esanda, nor egikari dezake EK-ko 24. artikularen eskubidea? Galdera honi erantzuna emateko, lehenik eta behin, pertsona fisiko eta juridikoak bereizi behar ditugu.

#### 4.1 Pertsona fisikoen gaitasuna

Gaitasun juridikoa edo gaitasuna orokorrean pertsona fisiko guztiek dute. PZLaren 6.1.1 artikulua xedatzen du gizon eta emakumeak jaiotzen direnetik eta hiltzen diren arte, prozesuko alderdi izateko aukera dutela edota, beste hitz batzuetan, EKaren 24. artikuluan aldarrikatutako eskubidea egikaritzeko aukera dutela. Gaitasun juridiko hau noiz jaiotzen eta desagertzen den aztertzeko Kode Zibilaren 29, 30 eta 32 artikulua kontuan izan behar ditugu.

Gaitasun juridikoaren hasierari dagokionez, kontuan hartu behar dugu *nasciturus*-ak, hau da, jaio ez den emalduak alderdi izateko gaitasuna izango duela, mesedegarri zaizkion ondoretarako (PZLaren 6.2.2º art.). Beraz, demandatu bezala ezin izango zaio ezer galdatu, hau da, jaio ez den pertsona bat ezin izango da demandatu.

Gaitasun juridikoaren amaieraren harira, hilda dagoen pertsona batek ez du alderdi izateko gaitasunik, beraz, kausatzailea ezin da izan ez demandatu ezta demandatzaile ere. Nabardura bat beharrezkoa da: prozesu batean alderdi den norbait hiltzen bada, horrek ez dakar beti eta zuzenean epaiketaren bukaera. Prozesua bertan behera geratuko da honetan eztabaidatzen ari diren interesak pertsonal hutsak direnean (adibidez, egoera zibilaren inguruko epaiketa zibil bat), baina bestelako gatazketan (gehienetan, ondare izaeradun eskubide eta betebeharraren inguruan) aurrerago azalduko dugun oinordetza prozesala emango da, hau da, hil den norbanakoaren ondorengoak prozesuan jarraituko du hildakoaren eskubide eta betebeharrekin.

#### 4.2. Pertsona juridikoen gaitasuna

Pertsona juridikoak, pertsona fisikoez osatutako ente ideal horiek alegia, EKaren 24. artikularen titularrak direla xedatzen du PZLaren 6.1.3 artikulua. Jakin dakigunez, KZ-ko 38. artikulua berdina adierazten du. Horrenbestez, pertsona juridikoek, publiko zein pribatuak, akzio edo uzi prozesalak eta kriminalak egikaritu ditzakete. Kontua da, pertsona juridikoek noiz eta noiztik duten hori egiteko gaitasuna, edo noiz jaiotzen den gaitasun hori. Legearekin bat ondo egituratuta daudenean izanen da. Ildo honetatik, KZ-ko 35 artikularen arabera, erakunde, elkarte eta fundazioek gaitasuna izango dute beraien eraketa-unetik. Eraketa prozesu hau, pertsona juridikoari aplikagarri zaion legean xedatzen denari jarraituz burutuko da.



### 4.3. Beste kasu batzuk

Adierazi berri ditugu kasu horiez gain, PZLko 6.1 artikulua alderdi izan daitezkeen beste zenbait kasu xedatzen ditu. Alde batetik, ondare masak eta ondare banatuak. Hauek, denbora jakin batean jabe edo titularrik ez duten ondareak dira), eta bi motatakoak izan daitezke: Hartzekodunen konkurtso egoeran dauden ondareak eta jaraunspen jaso gabeak deritzenak, hau da, titularra hiltzen denetik ondasunak dagokien oinordekoak jaso bitarteko denboran zehar jaberik ez dutenak.

Bigarrenik, nortasun juridikorik gabeko entitateak aipatu behar ditugu. Pertsonalitatez ez duten arren, edo pertsona juridikoak ez izan arren, alderdi izan daitezke, ikasketa-bidaia bat antolatzeke elkarreka kasu.

Hirugarrenik, Ministerio Fiskala ere alderdi izan daiteke, kasu zehatz eta mugatueta, PZLko 6.1.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Bestetik, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte edo taldeak ere, modu iraunkorrean eratuak edota kasu konkretu baterako sortzen direnak, alderdi izan daitezke. Hortaz, alderdi izateko gaitasuna dute, demandatzaile edo demandatu moduan.

Azkenik, sozietate edo baltzu zibil edo merkantil irregularrek ere, hau da, elementu pertsonal eta ondarezko elementuez osaturiko entitateak, nahiz eta legearekin bat oraindik egokiro eratu gabe egon, alderdi izateko gaitasunaz gozaten dute. PZLko 6.2 artikuluan adierazten da, ñabardura handi batekin: demandatu izateko gaitasuna dute soilik (ez demandatzaile).

## V. Gaitasun prozesala

Gaitasun prozesalak egintza prozesalak baliozko modu baten gauzatzeko ahalmenari edota epaiketa batera joateko eta bertan aritzeko ahalmenari egiten dio erreferentzia. Izan ere, eskubide eta obligazioen titularrek beti ez baitute gaitasun prozesalik. Beste hitz batzuetan: alderdi izateko gaitasuna duten guztiek ez dute gaitasun prozesalik.

### 5.1. Pertsona fisikoen jarduera

Pertsona fisiko batek gaitasun prozesala badu, egintza prozesalak era baliozko batean egiteko ahalmena duela adierazten ari gara. PZLaren 7.1 artikulua arabera, eskubide zibilen egikaritza osoa dute adin nagusiek edo 18 urtetik gorakoak eta judizialki ezgaituak ez dauden norbanakoek. Azken hauen harira, gogoratu behar, ezgaitasun judiziala epaile batek soilik aldarrikatu dezakeela eta horrela adierazten duen sententziak adieraziko duela eragindakoak zein motatako ezgaitasuna duen eta honek zein egintzari eragiten dien (ezin bozkatu, ezin gidatu,...). Gainera, aipatutako epailearen azken erabakiak ezgaituaren ardura duen tutorea edo zaintzailea zehaztuko du, hau da, bere gaitasuna zein beste pertsonak osatzen duen adieraziko du (tutorea, kuradorea,...).

Ezgaiak alde batera utzirik, antzeko beste kasu bat aztertzeraz igaroko gara, zarrastelarena hain zuzen. Pertsona edo norbanako batek bere etxeko ondasunak xahutzen dituenean, bere bikotearen edota seme-alaben egoera ekonomikoari eraginez, epaileak sententzia bidez zarrastel izendatzen du, kuradore bat ezarritik.



## I. Irakasgaiak

Azken honek zarrastel deklaraturakoak egiten dituen ekintzak kontrolatuko ditu, nahiz eta jarduteko beti zarrastel deklaraturakoaren oniritzia behar. Izan ere, kuradoreak ez baitu kuratelapekoaren borondatea ordezkatzen. Beraz, epaitegietara jotzeko kuratelapean dagoena ere ados egon beharko da. Azkenik, adin txikiei dagokionez, 18 urte baino gutxiago badute, gaitasun prozesalik ez dutenez, haien ordezkaritzan beren gurasoak (biak edo bat bestearen baimenarekin) arituko dira, haien guraso-ahalaren egikaritzan.

Hau guztia azaldu ondoren, azpimarratu behar dugu, EKren 24. artikulua isla, norbanakoak epaile aurrean babes-gabezia geratzea ekidin nahi dela eta horretarako, gaitasun prozesala ez dutenei ordezkaritza bat esleitzen diela ordenamenduak. Ildo honetatik, PZLko 8 eta 7.2 artikulua aintzat hartuz, Espainian inor babes-gabezia ez geratzea bermatzen da. Adingabeek edo ezgaiek (bereziki hauek direlako babesten direnak) epaiketara agertzeko legez ordezkatzen edo laguntzen dien inor izan ezean, defendatzaile judizial bat izendatuko zaie dekretuz. Bitartean Ministerio Fiskala arituko da haien ordezkaritzan. Beronek ordezkatuko du adingabea edo ezgaia epaiketara, demandatu edo defendatzaile bezala eta, ahalik eta lasterren, epaileari eskatuko dio defendatzaile judiziala ezartzeko. Legearekin bat, 5 egunetan ezarriko da. Defendatzaile judiziala, tutore edo kuradore bat izendatu arte jardungo da.

### 5.2. Pertsona juridikoen jarduera

Pertsona juridikoak, pertsona fisikoak ez bezala, ez dira ezgaitzen. Horrenbestez, pertsona juridikoei era egokian -legearekin bat, alegia- eratuta egotea galdatzen zaie. Beraz, modu egokian eratuta dauden pertsona juridikoekin ez dago arazorik eta defendatzaile edo demandatu izan daitezke. Kontua da ente idealak diren heinean, pertsona fisiko batek ordezkatu behar dituela, enpresaren zuzendariak, esaterako.

### 5.3. Beste batzuen ordezkapena

Pertsona fisiko eta juridikoez gain, aurretik esan bezalaxe, beste batzuk ere aritu daitezke epaitegietan. Hauek ere ordezkaritza bat izango dute.

Ondare masen kasuan, lehiaketaren administratzaileak izango dira defendatzaile edo demandatu. Oinordetzaren kasuan, berriz, haren administratzaile dena edo ondare banatuaren administratzaile dena izango da ordezkaritza. Nortasun juridikorik gabeko entitateen kasuan, ordezkaritza hauek legez ezartzen dituen pertsonak izango dira. Hau da, izatez edo legez ezarritako norbanakoak ordezkatuko du.

Azkenik, kontsumitzaile eta erabiltzaileei dagokionez, ordezkaritza euren ordezkaritza gainerakoan aurrean egikaritzen duena izango da. Kontsumitzaileen erakundeen kasuan, beren izenean hirugarrenen aurrean egitatez arduratzen dena izango da ordezkaritza.

## VI. Kasu bereziak

Orain arte, pertsona fisiko edo pertsona juridikoen dualtasunetik abiatu gara, baina dualtasun horrek ez ditu barne hartzen pertsona fisiko baten existentzia gaitzen duten eta pertsona juridiko baten konfiguraziora iristen ez diren tarteko kasu guztiak. Jarraian erdibideko kasu hauek guztiak aztertuko ditugu.



## I. Irakasgaiak

(1) **Ondasun erkidegoa:** Hauetan ondasunak komunean jartzen dira eta horren inguruan jarduten dute norbanakoez. Honen adibide dira, autonomoen negozioak. Ondasun komunitateek ez dute nortasun juridikorik orokorrean, hala ere, ñabardura batzuk egin behar dira. Erkidegoko edozeinek jardun dezake demandatzaile bezala legitimazioa aurreikusten zaien neurrian, baina komunitatea bera ezin daiteke demandatua izan, honen kide guztiak demandatu behar direlako. Jabetza horizontalaren kasuan presidentea da honen ordezkaria eta bera demandatu beharko da edo berak demandatu dezake.

(2) **Nortasunik gabeko bateratzeak:** Hauen adibide ikasketa bidaiarako batzordea izan daiteke edo eta erretiratu berri den lankide bati egingo zaion omenaldia antolatzeko batzordea. Guztiak (kide direnak) izango dira demandatu edo demandatzaile. Kasu honetan, eta bateratze hauekin trafiko juridikoan tratuak dituztenak babeste aldera, ezin daiteke alderdi izateko gaitasun falta alegatu, ondorioz, denek erantzun beharko dute banan-banan.

(3) **Sozietate zibil edo merkantil irregularrak:** Honela ezagutzen ditugu irregularrak diren enpresak edo ezkutuan ari direnak, enpresa izateko baldintzak betetzen ez dituztenean eta merkaturan dagoeneko ari direnean (PZLaren 6.2 art.). Hauek demandatuak bakarrik izan daitezke, eta honen izenean hirugarrenen aurrean aritzen dena izango da ordezkaria.

(4) **Ondare autonomoak:** Enpresa batean hartzekodunen konkurtsoa eman ondoren, ondasun horiek (ondasun konkurtsalak) edo norbait hiltzean eta oinordetza banatu aurretik beroiek (jaraunspen jasogabea) izango dira alderdi prozesala. Epaiketan ondasun hauen ordezkaria berriz, administratzaile konkurtsala lehen kasuan, eta oinordekoa, ondasunen administratzaile edo albacea, bigarrenean, izanen dira.

(5) **Kontsumitzaileen taldeak:** Hauen kasuan, beraien ordezkari bezala zein arituko den jakiteko kasu zehatza ondo aztertu behar da. Talde finakoak badira, berau osatzen duten pertsona guztiak izango dira demandatzaile edo demandatuak, hauek identifikatzea erreza denean. Zerbait zehatzerako sortutako taldeak badira (hipoteken inguruko klausulak erreklamatzeko, esaterako), orduan hirugarrenekin harremanetan dabilena izango da demandatua/demandatzailea.

## VII. Gaitasunaren tratamendu prozesala

Epaiketan alderdiek ordezkari bat dutela frogatu behar dute, hau da, pertsona fisiko edo juridiko baten ordezkari ari direla. Demandarekin batera ordezkari justifikatzen duen dokumentu prozesala aurkeztu beharko dute eta demandatuak badira, demandaren erantzunarekin batera. Argi gera bedi ez dela epaiketan aritzeko gaitasun prozesala justifikatu edo frogatu beharko, baizik eta ordezkari legala soilik.

Alderdien gaitasun prozesal falta edo gabezia, ofizioz edo alderdien salaketaz kontrola daiteke. Epaiketa ondo garatuta egoteko, nahitaezkoa da alderdiek gaitasun prozesala izatea eta hura ondo zehaztuta dagoela ofizioz kontrolatuko da. Beraz, epaileak edozein unetan sala dezake, demandatu edo demandatzaileak ez duela gaitasunik.



Gaitasun prozesalik gabe, epaitegira joanda, akats hori ez da konpongarria izango, eta beraz, epaiketa bertan behera geldituko da. Epailea ez bada ohartzen gaitasun prozesal ezaz, alderdiek ere hura sala dezakete. Kontu hau demandatuak salbuespen prozesal bezala jarriko du demandatzailearen kontra. Ordea, demandatzaileak ezin du salbuespen prozesalik jarri, soilik judizio aurreko entzunaldian edo bistan adierazi, aipatutako akatsa geroago (behin demanda jarri ondoren) konturatzen bada.

## VIII. Legitimazioa

### 8.1. Kontzeptua

Historian atzera eginez, legitimazioa ez da hasieratik existitu den kontzeptua, izan ere, XX. mendeko doktrinek zuzenbidea subjektiboa eta akzio eskubidea gauza bera zirela ulertzen zuten. Horren eraginez, zuzenbide objektiboaren titularrak bakarrik egikaritu zezakeen akzioa. Hori horrela, doktrina dualistak sortzean eta zuzenbide subjektiboaren eta akzio eskubidearen banaketa kontzeptuala ematen denean, hasten da legitimazioaz hitz egiten. Hortik abiatuta, zuzenbide objektiboaren eta akzioaren titularra bereizi egiten da, bestela esanda, alderdi materiala eta alderdi prozesala desberdintzen dira.

Bereizketa hori aintzat hartuz, aipatu berri ditugun bi alderdi hauek, hau da, alderdi materiala eta alderdi prozesala bat ez datozenean, legitimazioa zehaztea beharrezkoa izango da. Hortaz, zer da legitimazioa? Alderdi batek, kasu konkretu batean, interes zehatza edukitzea -edo duela esatea- epaitegi batera eta prozesu zehatz batera joateko. Hau da, legitimazioak kasu jakin batean, nor eskatzen eskubide subjektibo baten babes eta noren aurka zehazten du. Horrela, eskubide subjektiboaren babesaren eskaeraren inguruan bi posizio bereizi ditzakegu: Alde batetik, kasu zehatz batean eskubide subjektiboaren bermea eskatzen auzi-jartzailea, hots, legitimazio aktiboa duen pertsona, eta bestetik, legitimazio pasiboa, hau da, noren kontra egikaritzen den eskaera, hots, nor den demandatua. Beraz, legitimazioa kasu zehatz baten parte hartzeko gaitasuna da, demandatzaile edo demandatu bezala aritzeko alegia.

Adierazi berri ditugun bi posizio hauek, aktiboa eta pasiboa, egitate anitzi egiten diete erreferentzia. Egitate horiek, oro har, bitan bana ditzakegu: kasu arruntak eta kasu bereziak. Arruntei helduz, legitimazioa informazioa ematen digun baieztapen huts bat dela esan dezakegu. Kasu bereziei dagokionez, legeak esaten du zein epaitegira nor joan daitekeen, demandatzaile eta demandatu moduan.

### 8.2. Legitimazio-motak

#### 8.2.1 Legitimazio arrunta

Mota honetako legitimazioan, babes judiziala eskatzen da, partikularrak berezkozat jotzen dituen eskubideei dagokienez. Beraz, babes judiziala, propioak edo berezkoak diren eskubideen inguruan eskatu behar da. Gogoratu behar dugu EKaren 24.1 artikulua partikularraren berezko eskubideez, interes zehatz eta legitimoen jarduten duela. Halaber, PZLko 10. artikuluan adierazten da, legitimazioa duela judizioan harreman juridikoaren titular gisa agertzen denak, eta titulartasun hori, alderdi pasiboari, demandatuari egozten dionak. Hortaz, legitimazio arrunta, harreman juridikoaren titularra bere interes legitimoaren egikaritzan aritzean ematen dela esan dezakegu.



Aurretik aipaturiko interes legitimo horren egikaritzan, legitimazio aktiboa edo zuzenaz hitz egingo dugu, alderdi batek beste alderdiari bere eskubide bat edo interes legitimo bat urratu diola (titulartasuna berea dela adierazten duena) esaten dionean. Aldiz, legitimotasun pasiboaz jardungo gara, titulartasun horren urraketa egozten zaion pertsonaz hitz egiten dugunean. Kontuan hartu behar dugu, borondatearen autonomian eta xedapen askean oinarritutako ordenamendu batean gaudela, eta horren eraginez, harreman juridikoaren titulartasun aktiboa duenak bakarrik jar dezakeela demanda. Demanda beste pertsona batek jarri badu, titularra dela dioen pertsonaren alde, epaileak legitimazio aktibo eza adierazi beharko du, eta ezin izango da gatazkaren funtsean edo mamian sartu.

Aurretik esandako guztia eta EKaren 24. artikulua eta PZLaren 10.artikulua aintzat hartuz, bi legitimazio arrunt mota bereizi ditzakegu:

**(1) Jatorrizkoa:** Kasu honetan, alderdi materiala eta alderdi prozesala bat datoz. Alderdiak, prozesuan agertzen dira eta demandatzaileak eta demandatuak adierazten dute, hasiera batean harreman juridikoa sortu zuten subjektuak direla eta hortaz, eskubide subjektiboaren eta betebeharraren jatorrizko titularrak direla. Honako hau hurrengo kasuan ematen da, legitimatu aktiboak berak eta legitimatu pasiboak kontratu bat egin dutela esaten duenean eta bigarren honek kontratua ez duela bete adierazten denean.

**(2) Eratorria:** Alderdi materiala eta prozesala bat ez datozenean ematen da. Kasu honetan, demandatzaileak adierazten du prozesuko alderdi (eta posizio) bat (edo biak) ez direla harreman juridikoa sortu zuten jatorrizko subjektuak, hots, eskubide baten titularra dela baina hasiera baten berari ez zegokiola, eskubide horren titulartasuna eskualdatu delako. Adibiderik ohikoena, oinordetza bidez eskualdatu edo transmitituriko eskubideena izango da.

### 8.2.2. Ezohiko legitimazioa edo berezia

Ikusi dugun moduan, legitimazio arrunta eskubide subjektibo baten titulartasunaren baieztapen hutsean oinarritzen da. Hala ere, beste kasu batzuetan, arau prozesalek uzia jartzeko aukera ematen diote eskubide subjektiboaren titulartasuna baietsi ezin duenari. Legeak kasu zehatz batzuetan, epaiketa batera nor joan daitekeen, demandatzaile edo demandatu moduan, adierazten du. Zehazki aurretik adierazitako guztia, PZLko 10. II artikuluan jasotzen da. Bertan adierazten da, legeak legitimazioa egotz diezaiokeela, eskubide subjektiboaren titularra ez den pertsona bati.

Hortaz, legitimazio mota hau ezohikotzat jotzen dugu, hura, eskubide subjektiboaren titularra ez den pertsona bati egozten baitiogu. Hori guztia esanik, aztergai dugun PZLko 10.II artikulua, legitimotasun arruntaren salbuespenak edo bestela esanda, ezohiko legitimotasunaren kasuak jasotzen dituela baieztatu dezakegu. Legelariak salbuespen hauek jasotzen ditu, zenbait eskubide subjektibo babestu nahi dituelako. Kasuak hurrengoak dira:

**(1) Ordezkapen prozesala:** Pertsona batek, bere izenean beste batenak diren eskubide subjektiboak egikaritzea posible egiten duen fenomeno prozesalaren aurrean gaude. Adibiderik garbiena, subrogazio akzioarena (KZren 1.111 art) da. Berau egikaritzean, hartzekodunak legitimazio berezia dauka eta bere zordunaren zordunen aurka joan daiteke bere eskubideak egikaritzuz.





## I. Irakasgaiak

Akzio honek ez dio hartzekodunari eskubide materialik ematen, akzio edo uzi prozesala egikaritzeko eskubide hutsa baizik. Horrenbestez, hartzekodunak demandan bi baieztapen egin beharko ditu: alde batetik, KZko 1.111 artikuluko egitateak ematen direla, hau da, zordunaren ondasunak ez direla nahikoak kreditua kobratzeko; eta bestetik, zorduna, hirugarren baten hartzekoduna dela, hots, zordun nagusiak kreditu eskubide bat duela hirugarren batekiko. Horrela argudiatuta, hartzekodunak, demandan, ez du berarentzat eskatzen, bere zordunarentzat baizik, zordunaren ondarea osatzeko eta gero, haren gaineko eskubide materiala egikaritu ahal izateko. Beste adibide bat azpi-errentatzailearen akzioa (KZren 1552. art) da. Kasu honetan, errentatzailea errentariaren kontra joan daiteke, azpi-errentamenduaren bidez lortutako diru sarrera erreklamatzera.

- (2) **Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak eta horiek defendatzeko bestelako taldeak:** Legeak bereziki babesten ditu interes kolektiboak tartean daudelako. Interes kolektibo honen babesa PZLko 11. artikuluan xedatzen da. Horrenbestez, kasu konkretuan kaltea zuzenean pairatzen ez duen norbanako bat (elkarte edo taldeak) epaiketara joan daiteke legeak aintzatesten dion legitimazio aktiboa egikaritzuz.
- (3) **Ministerio Fiskalak interes publikoaren defentsa:** Ministerio Fiskala ez da interes pribatuaren babesean jarduten, baizik eta interes publikoarenean. Beraz, interes orokorra defendatzeko, Ministerio Fiskalak legitimazio aktiboa edo pasiboa (adibidez, KZko 74,75 artikulua eta PZLko 757.2 eta 761.2 artikulua) edo pasiboa bakarrik (Erregistro Zibileko Legearen 50.art) izango du.

### 8.2.3 Tratamendu prozesala

Legitimazioaren arauen izaera ez da materiala edo substantiboa, prozesala baizik, legitimazioarekin lotutako arauak prozesal hutsak baitira. Orokorrean, legitimazioa ez da baieztatu edo frogatu behar; hala ere, kasu batzuetan, salbuespenez, epaileak bere legitimazio frogatzea eskatu dezake. Horrela, esaterako, bere seme-alabentzat elikagaiak eskatzera doan gurasoak frogatu beharko du horiek egikari ditzakeela, horretarako demandarekin batera dibortzio-epaia aurkeztuz. Edo erretrakto eskubidea egikaritu nahi duenak, honen jatorria adierazten duen dokumentua aurkeztu behako du demandarekin batera.

Azkenik, legitimazio ezaren kontrolari dagokionez, auzitegi eskudunak ofizioz aztertu beharko du. Kasu batzuetan, epaileak legitimazio faltarengatik demanda ez du onartuko: Legeak batzuetan ezartzen duen legitimazioaren hasierako akreditazioa falta denean, edo egoera juridiko batzuei buruzko legitimazio arruntean, demandatzailea ez dagoenean legeak ezartzen duen kasu zehatz edo egoera horretan edo eta demandatzaileak argi eta garbi adierazten duenean berak bere izenean jarduten duela, hirugarren baten eskubideaz baliatuz, eta ez dagoenean hori ahalbidetzen duen ez-ohiko araurik. Adierazi berri ditugun egoera horietaz epailea ez baldin bada konturatzen, demandatuaren eskariz ere kontrola daiteke.



## IX. Alderdien aniztasuna edo pluralitatea

### 9.1. Kontzeptua

Lehenik eta behin, posizioa eta alderdiaren arteko desberdinketa gogoratu behar dugu. Prozesu orotan, bi posizio eta derrigorrez bakarrik bi aurki ditzakegu, alderdi demandatzaileari dagokion posizio aktiboa eta alderdi demandatuari dagokion posizio pasiboa. Posizio horietako bakoitzean, alderdi bat baino gehiago egotea posible da. Beraz, posizioak bi dira eta horietan alderdi anitz aurki ditzakegu. Hala ere, normalean, prozesu bakoitzean bi posizio bakarrik eta bi alderdi bakarrik aurkitzen ditugu. Alabaina, esan bezala, prozesu bakar batean alderdi bat baino gehiago egon daitezke, hau da alderdi aniztasuna eman daiteke. Alderdien pluralitatea edo aniztasuna dagoela esaten dugu, prozesu batean bi pertsona edo gehiago demandatzaile edo demandatu gisa agertzeko legitimazioa badute. Bi arrazoiengatik eman daiteke, alderdi legitimatuak anitzak direlako, hau da, legitimazio aniztasuna dugulako; eta bestetik, uzi metaketa ematen delako.

### 9.2. Sailkapena

Adierazi berri dugun alderdi aniztasun edo pluralitatea hau bi motatakoa izan daiteke: beharrezkoa alderdi aniztasuna eta beharrezkoa ez dena. Jarraian banaka aztertuko ditugu.

#### 9.2.1 Beharrezko alderdi aniztasuna (beharrezko litiskonsortzioa edo auzi-kidetza)

Arau prozesalek derrigorrean, alderdi demandatzaile bat baino gehiago egon behar dela adierazten dutenean edo eta horiek pertsona bat edo gehiago demandatu behar dituztenean, beharrezko alderdi aniztasuna ematen dela esan dezakegu. Hau da, eskubidearen titular diren guztiak izan behar dira demandatzaile, obligazioaren titular diren guztiak demandatuak diren bitartean, hots, guztiak jarri behar dute uzia guztien kontra, bestela epaiketa ez da ondo eratuta egongo. Hori horrela, demagun, alderdi demandatzaileak bi izan behar direla, biek demandatzen ez dutenean edo alderantziz, demandatu behar zaien biei demandatzen ez zaienean, epaiketa ez da ondo egituratuta egongo.

##### 9.2.1.1 Jatorria

Beharrezko litiskonsortzioa existitzearen arrazoia edo bere jatorria bi egitatei egotz diezaiokegu. Alde batetik, batzuetan legeak berak berariaz xedatzen du. Adibidez, zatitu ezin diren zorren kasuan, legeak esaten du zordun guztiak demandatu behar direla (KZ-ko 1139. art). Bestetik, gehienetan, beharrezko litiskonsortzioa ez da ematen lege batek horrela adierazten duelako baizik eta epaiketara eramaten den harreman juridiko materialak hala eskatzen duelako. Honekin bat, PZLko 12.2 artikulua dio, prozesuaren objektua dela eta babes judiziala zenbait pertsonetikiko egikaritu behar denean, derrigorrean pertsona talde hori demandatu beharko dela.

Jarraian, zenbait kasu erreal adieraziko ditugu, non litiskonsortzio mota honen beharrezkotasuna agerikoa den. Horrela da, esaterako, hirugarren batek ezkontza baten deuseztasuna eskatzen duenean (bi ezkontideak demandatu beharko ditu) (KZ-ko 74.art), edo negozio juridiko baten deuseztasuna eskatu nahi denean (negozio juridiko horren alderdi guztiak demandatu behar dira: adibidez, testamentu baten baliozkotasuna ezbaian jartzen bada, oinordeko guztiak demandatu beharko dira edo, sozietate kontratu bat deuseztatu nahi denean, kide guztiak demandatu beharko dira).



Edota, ondasun baten gaineko titular-kidetasun kasuetan, jabetza eskubide kolektibo hori zatiezina denez, demanda ondasunaren osotasunari badagokio, titular guztiak demandatu beharko dira.

### 9.2.1.2 *Motak*

Aurretik adierazitako guztia aintzat hartuz, beharrezko alderdi aniztasun mota ezberdinak aipatu behar ditugu.

Alde batetik, litiskonsortzio aktiboa dugu, zeinetan demandatzaile asko eta demandatu bat aurki dezakegun. Bestetik, litiskonsortzio pasiboa dugu, aurrekoaren kontrara, demandatzaile bat eta demandatu anitz ditugunean. Aurreko bi mota hauek uztartuz edo bateratuz, litiskonsortzio misto baten aurrean aurki gaitzke. Hau da, posible da, kasu batean, demandatzaile ugari egotea eta demandatu asko ere.

Mota horiek aipatuta, azpimarratu behar dugu, praktikan, alderdien aniztasuna pasiboa izaten dela. Horregatik, lehen adierazi dugun PZLko 12.2 artikulua, litiskonsortzio (edo auzikidetz) pasiboari soilik egiten dio erreferentzia.

Halaber, demandatzaile eta demandatuen kopuruaren arabera sailkapen hori alde batera utzirik, beste bi litiskonsortzio mota aipa genitzake: legezkoa eta borondatezkoa. Auzikidetz legala edo legezkoa da, legeak adierazten edo eskatzen duenean derrigorrean alderdien aniztasuna. Borondatezkoa da, berriz, legeak ez duenean galdatzen baina praktika prozesalak, harreman juridiko materialaren harira, litiskonsortzioa eskatzen duenean.

### 9.2.1.3 *Ondorioztatutako prozesuaren ezaugarriak*

Legitimazio bateratu edo kolektibo bat egoteak, ez du galdatzen auzikideen koordinazio edo menderakuntza egotea prozesuan. Horrela, auzi-kidetzan diharduten alderdi bakoitzaren abokatuek estrategia ezberdina jarraitu dezakete eta, era berean, alderdiek prokuradore ezberdinak izan ditzakete. Horrenbestez, independentzia osoa egon daiteke alegazio eta frogetan, litiskonsorte bakoitzak haien alegazio idatzi propioak eta haien frogabide zehatzak proposa ditzaketelarik. Modu berean, posible da helegite bat litiskonsorte bakar batek jartzea, baina kontuan hartu behar dugu helegite horren ebazpenak guztiei eragingo diela. Batera egin behar duten ekintza bakarra, xedapen ekintzak dira, ondasuna saldu nahi bada adibidez, guztiek egin beharko dute.

Hori guztiori esanik, galdera bat sortzen zaigu: Zer geratzen da nahitaezko litiskonsortzioa egonda -legeak edo harreman juridiko materialak berak galdatuta- ez denean egiten? Hau da, praktikan, pasiboa gailentzen dela jakinda, demandatu beharreko guztiak demandatzen ez direnean? Akats honen gaineko kontrola bi erataria egin daiteke. Alde batetik, epaileak ofizioz esku har dezake, epaiketaren egituraketa egokian ondorioak dituen akats prozesal baten aurrean gaudelako. Hau gertatzen bada -eta ez bada konpontzen- epaileak egintzak artxibatuko ditu edo eta prozesal hutsa den ebazpena emango (PZLko 420. art). Bestetik, epailea ez bada ohartzen, demandatuek nahitaezko auzi-kidetz pasibo faltaren salbuespen prozesala tartera dezakete. Salbuespen prozesal hau judizio aurretiko entzunaldian edo bistan, epaiketa arrunt bereziki arruntean eta hitzezkoan, hurrenez hurren, emango da aditzera.



### 9.2.2 Balizko alderdi aniztasuna (alderdi aniztasun ebentuala)

Mota honetako aniztasunaren aurrean gaude, alderdien aniztasuna ez denean nahitaezkoa, beste hitz batzuetan: behin-behinekoa edo ebentuala da; eman daiteke, baina ez bada ematen ez da ezer gertatzen, prozesua ondo eratuta egonen da. Litiskonsortzio mota honen existentzia, demandatzaile/demandatzaileen borondatearen araberakoa izango da. Beraz, epaiketa burutu daiteke, nahiz eta demandatu beharreko guztiak ez etorri. Honen barnean, berriz, hiru mota ezberdintzen dira: kasik beharrezkoa den litiskonsortzioa, partaidetza litiskonsortziala eta partaidetza itsaskor bakuna.

#### 9.2.2.1 Kasik beharrezkoa den litiskonsortzioa

Esan bezalaxe, honetan alderdi aniztasuna edo pluraltasuna, jatorrizkoa eta ebentuala da. Legeak alde aurretik aurreikusten du demandatu bat eta demandatzaile bat baino gehiago edo alderantziz egoteko aukera. Hots, Legitimazioa hainbat pertsonen dute baina ez derrigorrean batera; hau da, legitimazio aktiboa eta pasiboa pertsona bati baino gehiagori dagokio, baina ez da derrigorrezkoa guztiak demandatzea edo demandatuak izatea. Ezin ahaztu dezakegu EKaren 24 artikulua izatera indibiduala dela eta beraz, demandatzaileak erabaki dezake zein demandatuko duen (eta zein ez). Aukera honek baina muga bat du: batek baino gehiagok nahi badute demandatzaile izan eta bat baino gehiago demandatu nahi badira, denak batera joan beharko dira, prozesu berean. Beraz, epaiketa berean egingo dute guztiak, egitateak berdinak direlako. Honen adibide, doktrinak nabarmentzen duen kasua, betebeharraren solidarioena da.

Kasu honen eta beharrezkoa den alderdi aniztasunaren artean zenbait antzekotasun eta desberdintasun aurki ditzakegu: Antzekotasunei dagokionez, bietan, uzi bakarra egikaritzen da prozesu bakarrean. Beraz, alderdi guztiengan eragina duen sententzia bakarra emango da bi prozesuetan. Desberdintasunei helduz, kasik beharrezkoa den litiskonsortzioan, alderdien aniztasuna ez da harreman juridiko materialak galdatzen duen zerbait, zordun solidario bat demandatzea posible delarik; legeak bakarrik esaten du zenbait zordun aldi berean demandatu nahi badira, prozesu bakar batean egin beharko dela. Azkenik, adierazi beharra dago, logikoa den moduan, zordun solidario bakarra demandatzen bada, honek ezingo duela legitimazio faltagatik salbuespen prozesala jarri.

#### 9.2.2 Partaidetza litiskonsortziala

Prozesu batean hirugarren pertsona baten partaidetza onartzeak esan nahi du, ordura arte hirugarren bat izan den hori, alderdi prozesalean bihurtzen dela, hau da, epaiketara joan nahi duela esaten duela eta epaiketara etortzen dela. Aipatzekoa da, hirugarrenen partaidetza prozesuaren hasieratik eman zitekeela, eta hori ez bada hala gertatu, haien partaidetza epaiketa egituratzeko nahitaezkoa ez delako dela. PZLaren 13.1 artikulua borondatezko partaidetza hau aurreikusten du. Bertan adierazten da, gatazkan interes zuzena eta legitimoa duela frogatzen duenak izango duela aukera hori. Hirugarren hauek, martxan dagoen prozesu batean sartuko dira, bertan erabakitzen ari den harreman juridiko materialaren titular-kide direla esanez. Modu honetan, prozesuko alderdi bilakatuko dira eta euren legitimazioa arrunta izango da. Hirugarren hauek, haien berezko eskubideak edo eskubide propioak defendatuko dituzte, baina ez dute demandatzaileak jada egikaritu duen uzitik desberdina den beste bat egikarituko.



Kasu tipiko edo ohikoenak, hasieran batean demandatzailea izan ez den hartzekodun solidarioarena edo hasiera batean demandatua izan ez den zordun solidarioarenak dira. Hala ere, beste zenbait kasu existitzen dira, KZ-ko 1084 artikuluko oinordekidearen kasua edo sozietate kontratuen aurkaratzeko prozesuan, kontratu horien baliozkotasuna mantentzeko parte hartzen duten akziodunen kasua. Azkenik, kasu oso berezi bat edozein kontsumitzaileen parte hartzea da, hauen defentsan sortutako legezko elkarteek hasitako prozesuetan.

### 9.2.3 *Partaidetza itsaskor bakuna*

Ordura arte hirugarren bat izan dena alderdi izatera pasatzen da. Baina bere legitimazioa ez da martxan dagoen prozesu bateko harreman juridikoaren gaineko interesean oinarritzen; baizik, eta epaitzen ari den harreman juridikoarekin guztiz lotuta dagoen, haren mendekoa den beste harreman baten titularra dela esatearekin. Prozesu horretako ebazpenak, bigarren harreman juridiko honengan eragina izango du, hura aldatu edo ezeztatu dezakeelarik. Hori horrela izanik, hirugarren honek gatazka sortu duen lehen harreman juridiko horrekiko mendekotasuna duen bigarren harreman juridikoaren titularra izanik, epaiketan ezagutzen ari denaz interesa duela adieraziko du. Hortaz, partaidetza itsaskor bakunaz hitz egitean, hirugarren bat martxan dagoen edo erabakitzeke dagoen prozesu batean sartzea dakar, prozesu horren ebazpenak sor diezaiokeen kalteak ekiditeko. Beraz, hirugarren honek ez du prozesuan parte hartzen alderdietako bat defendatzek, bere interesak defendatzeko baizik.

Partaidetza itsaskor bakunaren adibide ohikoenak, formako akatsengatik aurkatzen den testamentuan notarioaren parte hartzea da eta bestetik, errentatzaile eta errentariaren arteko prozesuan azpi-errentariak bere interesen defentsan parte hartzea.

Behin partaidetza litiskonsortziala eta partaidetza itsaskor bakuna aztertu dugularik, arau komun batzuk nabarmendu ditzakegu: Hirugarren pertsonak kasura atxiki, etorri daitezke; hirugarren hauen parte hartzearen eskaera idatziz egin beharko da eta gatazkan interes zuzena dutela justifikatu beharko da eta beste alderdiei partaidetza berri honen inguruko iritzia galdetu beharko zaie. Epailearen lana izango da agertutako alderdiak entzutea eta hamar eguneko epean erabakia ematea auto bidez. Bitartean prozesuak martxan jarraituko du, autoa ematen den arte. Ordura arteko egintzak ez dira atzeratzen; preklusio printzipioari jarraiki, epaiketak aurrera jarraituko du.

## X. Eragindako partaidetza kasuak

Orain arte aztertu ditugun kasuetan, hirugarrenak nahi izan dutelako etorri dira epaiketara, hau da, hirugarrenen parte hartzea borondatezkoa izan da. Orain, eragindako parte hartzea aztertuko dugu, jada alderdi direnak, hirugarren baten parte hartzea eskatzen duteneko kasua alegia. Beraz, esan bezala, kasu hauetan, alderdiek ordura arte hirugarren bat izan dena epaiketara ekarri nahi dute. Nabarmentzekoa da, hau ezin daitekeela inoiz ofizioz eman, izan ere, EKren 24. artikuluko eskubidea borondatezkoa baita (noski, zibilean, gure arloan). Eragindako parte hartzea, PZLko 14. artikuluan arautzen da bi egoera bereiziz: demandatuaren eskariz eta demandatzailearen eskariz egiten denean. Bi kasuetan, legeak esaten duenera igorpen bat egiten da, lege hori materiala dela ulertu behar dugu. Egia esanda, demandatzailearen eragindako partaidetza kasuak zehazteke daude eta praktikan ia ez dira ematen; aldiz, demandatuaren eragindako partaidetzaren zenbait kasu berariazko aurreikuspen legala dute. Jarraian bi egitate edo suposizioak banan-banan aztertuko ditugu.



Lehenik, demandatuaren eskariz egiten denean, logikoa den moduan, demandatu batek beste demandatu bat epaiketara etortzea eskatzen du. Hau egitearen arrazoia sinplea da, dagoeneko demandaturia izan denak, jakinda demandatzaileak era desegokian demandatu duela, kontuak argitzeko deitzen du beste demandaturia. Demandatuaren kanporatzea ematen da; PZLaren 18. artikulua arautu bezala, txarto demandaturia izan denak, ondo demandaturia izan behar dena deitzen du eta, behin deitua eta agertua, epaileari eskatuko dio bera epaiketatik kanporatzea eta bestea (berak deitutako demandaturia, alegia) prozesuan onartzea. Eskaera hau egitean, epaileak demandatzailea entzun behar du hamar eguneko epean eta demandatuaren eskaria onartuz gero, epaileak demandatu berria epaiketara deituko du. Bitartean, demandari erantzuteko epea esekita geldituko da, eskaera onartzen ez den arte, edo demandatuaren eskaera onartzen bada, demandatu berriak erantzun arte.

Bigarrenik, demandatzailearen eskariz egiten denean adierazi behar da, lehen aurreratu dugun moduan, praktikan ez dela kasu bat ere ezagutzen, nahiz eta araututa egon etorkizunean lege materialak sor ditzakeen kasuetarako. Honen harira, legeak esaten du, lege material batek arautzen duenean, demandatzaileak epaiketara hirugarren bat etortzea eska dezakeela. Eta zer gertatzen da, demandatzaileak epaiketara ekarri nahi duena, zer da? Beste demandatzaile bat? Ezin daiteke demandatzaile izan, ezin baitaiteke inor behartu EKaren 24. artikulua egikaritzera. Baina ez da ezta ere demandaturia izango. Egun ez da ulertzen: epaileak hirugarren bat sartzea ahalbidetzen badu, legeak alderdiei ematen dien jardura ahalmen berdinak edukiko dituztela dio legeak...

## XI. Prozesu-oinordetza

Prozesuak denbora bat galdatzen du, normalean nahiko luzea. Horren ondorioz, posible da denbora horretan posizioetan aldaketa bat ematea. Oinordetza prozesalaz hitz egiten dugu, prozesuko alderdi bat prozesuz *kanpoko* alderdi batengatik aldatzen denean -prozesu berekoa balitz, eskubide nahasketa emango litzateke- bere posizio eskuratuz. Prozesu oinordetzan hiru kasu hauek nabarmendu ditzakegu: pertsona fisikoaren heriotza, pertsona juridikoaren fusioa edo absortzioa eta gauza liskartsuaren *inter vivos* eskualdatzea.

### 11.1. Pertsona fisikoaren heriotza

ehenik eta behin, pertsona fisikoaren heriotzaz hitz egin behar dugu. Arau orokor moduan, oinordekoa kausatzailearen eskubide eta obligazioetan subrogatzen da (KZ-ko 661. art). Normalean prozesu oinordetza ematen da. Hala ere, salbuespen bat adierazi behar dugu. Izan ere, eztabaidatzen ari garen eskubide oso pertsonala bada (dibortzioa, ezkontza...), oinordekoek ez dute hildakoa ordezkatzeko eta epaiketara bertan behera geldituko da.

PZLko 16. artikulua, prozesuko alderdien heriotza aurreikusten du eta berarekin bat gatazkaren objektuaren eskualdatzea *mortis causa* transmititzen da arau orokor bezala, hau da, oinordekoak hildakoaren lekuan jartzen dira. Errealitatean bost aukera daude:

- (1) Demandatzailea edo demandaturia hiltzen denean eta bere oinordekoak auzitegiari heriotzaren berri ematen dionean: une horretan, epaileak prozesua eseki behar du. Bigarrenik, epaileak horren berri beste alderdiari jakinaraziko dio. Eta oinordekoak heriotza eta oinordetza tituluak frogatzen baditu, oinordekoa pertsonatutzat joko da.



## I. Irakasgaiak

(2) Auzitegiak gatazkaren alderdi baten heriotza ezagutzen badu eta oinordekoa ez bada agertzen epaitegira hurrengo 5 egunetan: Epaileek bizirik dauden alderdiei, aldeetako bat hil egin dela esan behar die eta oinordekoa zein den adieraztea eskatuko die. Gainerako alderdiek eska dezakete, oinordekoak eta beren helbideak identifikatuz, prozesua existitzen dela jakinaraztea. Oinordekoak 10 eguneko epean epatuko dira. Kasu horretan, prozesuaren esekitzea emango da.

(3) Hildakoa demandatua bada, eta gainerako alderdiek ez badute ezagutzen edo, ezagututa, ezin badira aurkitu, edo, aurkituta, ez badute agertu nahi: Prozesuak aurrera jarraituko du berdin-berdin. Hala ere, aurreko honi 2 ñabardura gehitu behar dizkiogu. Hil den demandatua, demandari erantzun aurretik zendu bada, bere oinordekoak errebellian edo auzi ihesean deklaratuko dira. Aldiz, demanda erantzun ondoren hiltzen bada, ezin izango dira, logikoa den moduan, errebelde deklaratu.

(4) Hildakoa demandatzailea bada, eta bere oinordekoak ez badira agertzen gainerako alderdiek ez dituztelako ezagutzen edo ez dutelako agertu nahi: epaiketa bertan behera uzten da momentuz. Atzera egitea eman dela ulertuko da.

(5) Hildakoa demandatzailea bada, eta honen oinordekoek ez badute epaitegira agertu nahi: Kasu honetan, egikaritutako akzioari uko egitea emango da. Uko egiteko demandatzaile guztien adostasuna beharrezkoa izango da. Eman daiteke demandatzailearen oinordekoak bat baino gehiago izatea eta litiskonsortzioa ematea. Kasu horretan, litiskonsorte guztien adostasuna beharko da epaitegira joateko.

### 11.2. Pertsona juridikoen fusioa edo absortzioa

Normalean, pertsona juridikoaren desagerpenak ez dakar posizioen aldaketarik, legeak horren pertsonalitatearen egonkortasuna aurreikusten duelako egiteke dauden epaiketa guztiei begira. Alabaina, ezin dugu berdina baietsi pertsona juridikoen fusio edo absortzioez ari garenean. Izan ere, kasu hauetan posizioen aldaketa eman daiteke. Hori gertatzen bada, aldaketa horiek frogatu beharko dira. Hau da, epaiketak martxan badaude posizio guztiak mantendu behar ditu enpresa berriak. Beraz, ikusi beharko da prozesuko posizioekin zer gertatzen den, bata bestearen tokian jartzea posible delako. Aldaketa egiaztatuta, ordezkapen prozesala emango da.

### 11.3. Gauza liskartsuaren *inter vivos* eskualdatzea

Prozesuan eztabaidatutako gauza bat ez da eskualdaezin bilakatuko, prozesu batean egote hutsagatik. Hau da, gauzekin edozer egin daiteke eta uziaren gauza edo bizitzako ondasuna prozesuan zehar eskualdatu daiteke. Izan ere, gatazkan dauden ondasun asko erosteko interesatuak egoten dira, esaterako, enkanteetara joaten direnak, nahiz eta zalantza edo ziurgabetasuna egon. Beraz, uziaren gauza edo bizitzako ondasuna prozesuan zehar eskualda daiteke. Hau gertatzen bada, epaiketaren objektu den gauzaren jasotzaileak, eskualdatzea frogatuz, prozesuan eskualdatzailearen tokian jarri nahi duela eskatu dezake. Honen aurrean, idazkari judizialak hamar egunez egintzak eten ditzake eta beste alderdia entzun beharko du.

Kontrako alderdiak aukera desberdinak ditu. Batetik, eskualdatzearen aurka ez agertzea. Kasu horretan, epaitegiak oinordetza prozesala onartuko du auto bidez eta egitatean etendura altxatuko du. Bestetik, kontrako alderdia, eskualdatzearen aurka ager daiteke. Hori gertatzen bada, auzitegiak eskualdatzea onartu edo gaitzetsi beharko du.



Auzitegiak eskualdatzea gaitzetsi egingo du, kontrako alderdia babesgabezian geratzen bada, hau da, kontrako alderdiak haren eskubide edo defentsa eskualdatzailearen aurrean bakarrik egikaritu dezakeenean, edo posizio aldaketak bere defentsa eskubidea zaildu dezakeenean. Kontrako alderdiaren defentsagabezia ez bada ematen, auzitegiak eskualdatzea onartuko du.

## XII. Postulazio prozesala

Ordenamendu juridikoak, alderdi prozesalei ez die ekintza prozesal guztiak bere kabuz egiten uzten, hau da, herritarrok ezin gara bakarrik joan epaitegietara, zuzenbidean aditua den norbaiten laguntza behar dugu, abokatu eta prokuradore baten laguntza alegia. Modu horretan, postulazio prozesalaren beharra agertzen da, hau da, herritarrek prozesuan behar duten zuzenbidean teknikoak edo adituak direnen laguntza teknikoa.

Arau orokor moduan beraz, hauen erabilera nahitaezkoa da. Lehenik eta behin EKaren 24.2 artikuluan hauen beharra norbanakoak duen oinarritzko eskubidetzat jotzen delako, zigor prozesuan bereziki, eta bigarrenik, funtzionamendu juridikoa errazten dutelako, hau da, legegariak alderdien interesak abokatu eta prokuradoreen esku-hartzearekin hobeto defentsen direla pentsatzen baitu. Zuzenbidean teknikoak edo adituak diren hauek bitartekari lana egiten dute eta prozesuaren azkartasuna bermatzen dutela baieztatu genezake. Izan ere, herritarrak zuzenean epailearengana joan behar izango balute, asko luzatuko litzateke auzia.

Espainian bi gorputzek burutzen dute postulazioa eta bakoitzak funtzio zehatzak ditu. Alde batetik, abokatuak ditugu. Zuzenbidean graduatuak, abokatutza masterdunak eta Estatuan gaituak, oro har aholkularitza juridikoa burutzen dute, epailetara joatea erabakitzen badute estrategia judiziala zehazten dute, eta prozesuan haien bezeroaren defentsa teknikoa burutzen dute. Bestetik, prokuradoreak ditugu, herritarren ordezkapena burutzen dutenak. Gainera, komunikazio egintzak eta beste epaitegi batzuekiko laguntza eta elkarlan jarduerak burutzen dituzte. Adierazi behar da, azken gorputz honen beharrezkotasuna ezbaian jarri dela azken urteotan.

Azkenik, bi kontu adierazi behar ditugu. Batetik, epaiketa bat ez dela egongo ondo egituratuta, prokuradore eta abokatuen postulazioa beharrezkoa izanda hauek ez badira agertzen. Bestetik, kasu gehienetan abokatu eta prokuradoreak epailetan egotearekin nahikoa dela, hots, zuzenean eragindako herritarrak ez duela zertan joan. Hala ere, oso pertsonalak diren egintzak burutzeko (*intuitu personae*), adibidez, alderdien itaunketa (PZLko 301. artikulua), alderdiak egotea eskatzen da.

## XIII. Ordezkaritza prozesala

### 13.1. Kontzeptua eta ezaugarriak

Prokuradoreak alderdien ordezkaritza funtzioa betetzen dute eta funtzio honen monopolioaren jabe dira. Gorputz juridiko hau, alderdiak ordezkatzeko sortu da bereziki. Aipatzekoa da, herritarrok nahi dugun kolegiatutako prokuradorea aukeratzeko eskubidea dugula, baina praktikan abokatuak aukeratzeko dituztela.





Prokuradorearen eta herritarraren harreman juridikoari dagokionez, ordezkaritza mandatu bat egongo da haien artean. Hau da, berariazko, ordaindutako eta tipikoa den kontratu bat, zinetan alderdiek prokuradorearen ordezkaritza onartzen duten. Kontratu honen bidez, edo ordezkaritza mandatu honen bitartez, herritarrak bere prokuradoreari ahalordea ematen dio. Botere edo ahalorde hori bi gauza dira eta esanahi ezberdina izango dute: Alde batetik, herritarrak egiten duen borondatezkoa adierazpena da; eta bestetik, dokumentua bera, ordezkaritza jasotzen duena.

### 13.2. Ahalorde-motak

Ahalordeak lau motatakoak izan daitezke.

Lehenik, *notarioek ematen duten ahalordea* dugu (KZ-ko 1.280, 5. art eta PZLko 24. art.). Ahalorde mota hau, bereziki enpresek erabiltzen dute. Notarioek prokuradoreari ahalordea ematean, papereko ahalorde eta elektronikoa ematen diote. Bi motatako boterea eman daiteke: orokorra -edozein epaiketarako edo edozein egintza prozesalerako ematen dena- eta berezia -ekintza edo epaiketa konkreturako ematen den ahalordea, adibidez, uko egiteko, transakzioa bat egiteko, arbitrajera meneratzeko, etab.-. Botere berezia galdatzen duen egintza bat egin daiteke ahalorde orokor batekin, baldin eta ondoren enpresak edo herritarrak pertsonalki epaile aurrean horrela nahi duela esanbidez adierazten badu.

Bigarrenik, *apud acta* delako ahalordea dugu (BJLOko 453.3 art eta PZLko 24.art). Boterea bere prokuradoreari eman nahi dion herritarrak, epaitegira joan behar da eta bertako idazkari judizialak paper bat emango dio. Paper horretan ahalordea jasoko da eta abokatuarekin batera idazkariaren aurrean sinatuko da. Duela gutxi arte behartuta joan behar zen kasuaz ezagutu behar zuen epaitegira, baina orain, posible da edozein epaitegira joatea. Dohainik egiten da, baina muga batekin: epaiketa konkretu baterako balio du soilik. Paper fisikoa emateaz gainera, elektronikoki eman behar da.

Hirugarrenik, *Prokuradoreen Elkargoko Ofiziozko ahalordea* dugu, diru edo baliabide nahikorik ez duenari Estatuak eta prokuradoreen kolegioak ematen diena. Kolegioak izendatzen du beraien ordezkari, eta ez dute prokuradorea ahalordetu behar.

Azkenik, *egoitza judizialean egindako agertze elektronikoa* dugu. Azken ahalorde mota honek aurrekoak ordezkatu nahi ditu eta etxetik egin daiteke. 2015eko erreformarekin sortu zen. Ez da beharrezkoa prokuradorea fisikoki edo presente egotea, pasahitz bat erabiliz egiten baita. Harpidetzean ziurtagiri bat ematen dizute, non *apud acta* ahalordetzen den.

### 13.3. Betekizunak

Ahalordearen betekizun nagusiak bi dira: legezketasuna eta nahikotasuna. Legezketasunaren betekizuna absolutua da eta ahalordea legearen arabera ematea galdatzen du. Beraz, ahalorde konkretu bat ondo eginda dagoen edo ez egiaztatu dezakegu legeari begiratuta, nahiz eta ez jakin zein prozesuri edo zein egintzari dagokion. Nahikotasuna aldiz, betekizun erlatiboa da, eta hura betetzen den edo ez jakiteko, kasu konkretua begiratu beharko dugu, hau da, eman den ahalordea dagokion prozesu edo egintza zehatzarekin lotu beharko dugu.



### 13.4. Boterearen hasiera, garapena eta iraungitzea

Prokuradoreak, ahalordea onartzen duenean, ordezkaritza prozesala bere gain hartzen duela ulertzen da. Boterea onartu duela uste izango da bere lana egiten hasten denean. Horrenbestez, prokuradore baten lehen agerraldian, bere ahalordea prest egon beharko da. Hortik aurrera, eta ordezkaritzak irauten duen bitartean, prokuradoreak era guztietako epatzeak, zitazioak, errekerimenduak eta jakinarazpenak entzun eta sinatuko ditu, baita epaiketak agertu ere.

Berak eginen ditu auzian zehar bere alderdiaren alde egin behar direnak, epaia bete arte. Egintza horiek guztiek ahalorde-emaileak egingo balitu adinako indarra izango dute (PZLko 28.1 art). Bestetik, kontuan hartu behar dugu, azken erantzukizuna abokatuarena izango dela, eta beraz, prokuradoreak ezer egiten ez badu, ez duela erantzukizunik izango. Hau da, lana egiten hasten denean (isilbidez ahalordea onartzen duela ulertzen da). Esan bezalaxe, prokuradoreak egiten duen guztia herritarrak eginda bezala ulertuko da, herritarra ordezkatzan duelako. Prokuradoreak jasotzen duen guztia “zuk” (epaiketan diharduzun horrek) jasotzen duzu, eta berak sinatzen duen guztia “zuk” ere sinatzen duzula ulertzen da.

Prokuradorearen ordezkaritza hasten den moduan, bukatu egiten da, baina noiz? Prokuradorearen ordezkaritza prozesala bukatu egiten dela baieztatu dezakegu hurrengo kasuak ematen direnean: Prokuradorea hiltzean, honek lanbidea uzten duenean, izendatu duen alderdiak ezeztatzen duenean, prokuradoreak atzera egiten badu edo eta botere emailea hiltzen denean.

### 13.5. Ordezkarien beharrezkotasuna eta salbuespenak

Lehen aurreratu dugun moduan, herritar orok prokuradore baten beharra du epaiketara joateko eta ahalordea behar da (PZLko 23.1 art.) prozesuko lehen egintza burutzen hasteko. Horrela ez bada, eta akatsen bat badago, prokuradorearen parte hartzea beharrezkoa denez, boterea falta bada edo akatsen bat badu, epaileak ofizioz eskatuko dio hori zuzentzeko. Hots, ahalorde hori gabe ezingo da egintzarik burutu. Gainera, akatsa konpongarria bada, denbora bat emango dio konpontzeko. Epailea ez bada konturatzen akats hori dagoela, horren inguruko salbuespen prozesala jar dezake beste alderdiak. Hala ere, ordezkaritzaren beharrezkotasun printzipioak zenbait salbuespen ditu, PZLko 23.2 artikuluan xedatzen direnak.

Horren harira, legeak aurreikusten du ondorengo kasu hauetan prokuradoreak ez direla beharrezkoak:

- (1) Beren zenbatekoa 2000 euro baino gutxiago balio duten hitzezko epaiketak, baldin eta zenbatekoagatik baldin badira. Materiagatik epaiketetan beti behar da prokuradorea.
- (2) Prozedura monitorioetan, lehen eskaera egiteko.
- (3) Epaiketa unibertsalen kasuan, ondare edo ondare baten gainean, konkurtsoak eta oinordetza eskatzeko. Baltzuko junta edo batzarretarako deitzeko ere ez da behar prokuradorerik.
- (4) Doako laguntza juridikoko gaien ebazpenen aurkaratzeari buruzko intzidentetan.
- (5) Epaiketa aurretik premiazko neurriak eskatzeko.



## I. Irakasgaiak

19/10

- (6) Estatuko abokatuak AAEE edota Udalerrietakoak prokuradore gabe aurkeztu daitezke.
- (7) Prokuradore bat prozesu bateko alderdi denean, ez du beharko ordezkartzarik.
- (8) Kontuen zineko prozeduran abokatuak ez du behar prokuradorerik bere ordainsariak bezeroari eskatzeko.
- (9) Errektifikazio-akzioa egikartzeko prozesuetan: benetako informazioa ematen ez denean, eta merkatuko lehiakortasunean ondorioak dituenetan eta kalteak konpontzeko.
- (10) Adiskidetze egintzak burutzeko, akordio batera heltzeko.
- (11) Borondatezko jurisdikziozko egintzak.

Adierazi berri ditugun kasu hauetan, ikusi dugun moduan, prokuradoreen ordezkartza ez beharrezkoa. Hori horrela izanik, nork ordezkatzeko ditu alderdiak? Nahiz eta kasu horietan prokuradorearen presentzia nahitaezkoa ez izan, alderdiek prokuradorea izendatu eta erabili dezakete, salbuespenak ez baitu esan nahi ezin denik erabili. Bestetik, abokatu bat ere izendatu dezakete eta azkenik, alderdiak berak bere burua ordezkatzeko du. Azken honen ildotik, abokatuak, prokuradorea edo eragindako herritarra bera ez den beste edozein hirugarren ezin daiteke prozesuko alderdiaren izenean aritu honetan.

### 13.6. Prokuradoreen funtzio berriak

Prokuradoreei, 42/2015 Legearen ondorioz zenbait funtzio berri esleitu zaizkie: Lehenik, komunikazio egintza berriak esleitu zaizkie, lehen komunikazio jarduera hauek bulego judizialeko langileek burutzen zituzten, baina orain posible da prokuradoreek ere horiek burutzea. Komunikazio egintza horiek burutzeko egiaztatze gaitasuna eta bulego judizialean identifikatu ahal izateko kredentzialak ematen zaizkie, modu pertsonal eta ordezkazinean jarduten baitute.

Aipatu behar da, haien jarduera Justizia Auzitegiaren Letratuaren aurrean aurkaratu daitekeela. Bigarrenik, beste auzitegiekiko laguntza eta kooperazio egintzak burutzen dituzte. Auzi askotan auzitegi batek beste bati laguntza eskatzen dio, galdera batzuei erantzuteko. Orain arte, bulego judizialak egiten zuen, baina orain prokuradoreek ere egin dezakete. Funtzio berri hauek, zalantza izpirik gabe abantaila bat dute: prozesuari azkartasuna ematea. Haatik arazo bat ere badute: prokuradorearen zerbitzu berri hauek ordaindu egin behar direnez hura ordaindu dezaketenen eskura soilik daude.

Noiz egiten dituzte prokuradoreek funtzio berri hauek? Alderdiek hala eskatzen dietenean (eta ordaintzen dutenean, noski). Beraz, alderdiek eskatu ezean, bulego judizialeko langileek edo kidegoak burutuko ditu funtzio hauek, orain arte bezala. Bi kasutan, komunikazio elektronikoa egin behar da, prokuradoreak zein funtzio burutzea nahi duen adieraziz. Aipagarria da, doako laguntza juridikoaren kasuan prokuradoreak ez dituela funtzio hauek beteko.

## XIV. Defentsa teknikoa

Prokuradoreek betetzen duten ordezkartza prozesala aztertu ostean, abokatuak burutzen duten lana aztertuko dugu, abokatuaren defentsa teknikoa alegia. Adierazi behar dugu, abokatu, bezero eta organo jurisdikzionalaren arteko harremana prokuradorearenekin alderatuz, ez dela hain formala eta defentsa ez dela jasotzen dokumentu batean, ahalordea bezala. Desberdintasun horiek alde batera utzirik, abokatuak hiru funtzio betetzen dituzte.



Batetik, orokorrean aholkularitza juridikoaren funtzioa burutzen dute. Lan hau, bezeroari zuzenbideari buruzko jakintasuna adieraztean oinarritzen da. Printzipioz, abokatuak ez da epaitegi kontuetan sartzen. Aholkuaren atzean gatazka bat atzematen badu, abokatuak bi aukera aztertu behar ditu: epaitegira joan edo ez. Azken kasu honetan *Alternative Dispute Resolution* deritzen teknika bat erabiltzea azter dezake. Gatazka epaitegietara eramatea pentsatzen badu, abokatuak hartan erabiliko den estrategia judiziala pentsatu (zer egin epaiketean kasua irabazteko?) eta garatuko duena. Epaiketean berriz, estrategia hori garatuz, herritarraren defentsa teknika burutzen du.

Herritar eta abokatuaren arteko harremana zerbitzu errentamendu kontratu bat da eta normalean ahozkoa izaten da. Ez du formalitaterik eskatzen. Arau orokor bezala, herritar espainiarrek abokatuak behar dute kasu guztietan. Abokatuak gaitutako norbanakoa izan beharko du, eta honen sinadura barik ez du epaileak inolako jarduerarik edo egintzarik onartuko. Bera presente egoteak ere balio du, beraz, bera bertan egotea edo bere sinadura beharrezkoa da. Abokatuaren sinadura gabe jarri bada demanda bat, akats konpongarria izango da. Nola konpontzen da akatsa? Idazki berri bat aurkeztu behar da abokatuak aurrekoa beretzat duela esanez, betiere azken hau sinatuz. Konpontzen ez bada, kasuan kasuko dokumentuak ez du bere funtzioa beteko eta demanda ez aurkeztuzat joko da, eta demandatua ere ez aurkeztuzat hartuko da, baina ez da auzi ihesean deklaratu.

Arau orokorraren salbuespena (bere parte hartzea derrigorrezkoa da), PZLko 31.2 artikulua arabera, ez da beharrezkoa izango abokatuen parte hartzea:

- (1) Beren zenbatekoa 2000 euro baino gutxiagoa denean hitzezko epaiketetan, zenbatekoagatik badira.
- (2) Prozedura monitorioetako hasierako eskaera.
- (3) Epaiketean pertsonatzeko idazkiak.
- (4) Epaiketa aurretik premiazkoak diren neurriak eskatzen dituzten idazkiak.
- (5) Bisten edo jardueren premiazko eskeipena eskatzen duten idazkiak.
- (6) Kontuen zinek prozeduran prokuradoreak ez du behar letraturik.
- (7) Errektifikatzeko akzioa egikaritzen den prozesuetan.
- (8) Borondatezko jurisdikzioko egintzak.

Kasu hauetan abokatu batek, alderdiak berak (zuzenbidean graduatuek kolegioan eskatu dezakete baimena horretarako, emanez gero beren burua defenda dezaketelarik), edo prokuradore batek ordezkatu du. Ezin du alderdia aldeztu, abokatu edo prokuradorea ez den hirugarren batek.

### **XV. Abokatuaren edo prokuradorearen beharrezkotasun eza eta alderdien babesgabezia ekiditea**

Beharrezkoa ez denean ere, abokatuak eta prokuradoreak, esan bezalaxe, parte har dezakete prozesuan. Baina kasu horretan, kontuan izan beharko dugu abokatu edo prokuradorea erabiltzea erabakitzen badu alderdi batek eta besteak ez, beste alderdia babesgabezia gelditu daitekeela. Horregatik, abokatu edo prokuradorea erabiltzea erabakitzen duen alderdiak beste alderdiari hori berori jakinarazi beharko dio.



Gauzak horrela, demandatzailea bada, beharrezkoa izan gabe, abokatu/prokuradorea erabiltzea erabaki duena, demandan jakinarazi beharko du eta demandatuak erantzuteko dituen 20 eguneko epean hiru egun izango ditu auzitegiari jakinarazteko bere erabakia. Aldiz, demandatua bada abokatu/prokuradorea erabiltzea erabaki duena, auzitegiari jakinaraziko beharko dio hiru eguneko epean, eta baita demandatzaileari ere. Hori ikusita, modu berean, demandatzaileak ere hauen erabilera egin nahi izan ezker, auzitegiari jakinarazik dio hiru eguneko epean.

Bestetik, gertatu daiteke abokatuaren edo prokuradorearen parte-hartzea derrigorrezkoa ez denean alderdiek doako justiziarako eskubidea eskatu nahi izatea. Hau da, baliteke alderdi batek prokuradore eta abokatuak erabiltzea prozesuan eta hori ikusita beste alderdiak ere, berdina egin nahi izatea baina horretarako dirurik ez edukitzea. Kasu horretan, zerbitzu hau jasotzea baliaabideak ez dituen alderdiak, doako justiziarako eskubidea eska dezake. Hori horrela, epaileak epaiketa esekiko du hori ebatzi arte. Hortaz, alderdi batek erabiliko duela esaten badu eta beste alderdiak dirurik ez badu zerbitzu juridiko horiek ordaintzeko, orduan ofiziozko abokatu bat eskatu ahalko du.

Azkenik, kostuen inguruko arau berezi bati so egin behar diogu. Kontuan hartu behar dugu, epaiketa batean gastuak daudela eta posible dela alderdietako bati horien ordainketa esleitzea, baldin eta kasua galtzen badu eta ausarkeria edo fede txarrarekin aritu bada. Alderdi batek, abokatu eta prokuradorea erabiltzen dituenetan eta horien erabilera nahitaezkoa ez denean, printzipioz, haei dagokien zenbakia ez da sartuko kostuetan, baina lehen aurreratu dugun moduan, salbuespen bi daude: auzitegiak kostuak ordaintzea galdatzen dionetan alderdi bati ausarkeriaz jokatu duelako eta ordezkatu edo babestutakoaren helbidea aldatzen denean, edo helbidea epaiketa burutu denetik ezberdina denean, hau da, prokuradore eta abokatu mugitzea galdatzen denean.

## XVI. Kontuen zina

Abokatu batek edo prokuradore batek bere lana egiteagatik lortzen duten eskubide garrantzitsuena beren soldata izango da; hau da, abokatuak ordainsariak jasotzen dituzte eta prokuradoreek aldiz, eskubideak. Gainera, prokuradoreei dagokie prozesuko gastu guztiak ordaintzea; abokatu eta perituei ordaindu behar zaizkien ordainsari eta tasak, eta aurkaratzeko beharrezkoak diren funtsak izan ezik (PZLko 26.2,7. art)

Bai batek bai besteak kobratzen ez badute, ahalik eta azkarren ordaintzeko eskatu ahal izango die kasuaz eskatzen ari den epaileari. Horrenbestez, epaileak titulu exekutibo bat sortu dezake, aurretik tutela deklaratorik gabe, bezeroaren kontra joateko. Honekin bat, bezero zordunak bere obligazioak ahalik eta azkarren betetzeko, legelariak hiru prozedura ezarri ditu: (1) Bezeroak prokuradorea fondoez hornitzeko prozedura. (2) Bezeroak prokuradoreari eskubideka eta ordaindutakoak ordaintzeko prozedura. (3) Bezeroak abokatuari bere ordainsaria eskatzeko prozedura. Hiru prozedurek era berean funtzionatzen dute (PZLko 33-35 artikulua), esan bezala, abokatu eta prokuradoreei babes-judizial pribilegiatu bat eta titulu exekutibo bat esleituz.

Prozesua prokuradore eta abokatuak bezeroari funtsak eskatzean hasten da eta bezeroek hauei ordaintzeko dirurik ez dutenean. Egoera horren aurrean, abokatu eta prokuradorek kasua ezagutzen ari den epailearengana joan daitezke eta honi eskatu diezaiokete bezeroak zor diena ordaintzea.



Prokuradoreak hau eskatzen duenean, idazkari judizialak bezeroari 10 eguneko audientzia edo tartea emango dio ordaintzeko. Horrela ere ez bada konpontzen, idazkari judizialak dekretu bidez erabakiko du, zenbat diru eta zein epetan eman behar den adieraziz. Dekretu horretan idazkari judizialak exekuzioa emango dela adieraziko du, lehen adierazi dugun moduan, titulu exekutibo bat sortzen baita haiengan, hortaz, bezeroek duten zorra kitatzeko exekuziora joko da.

Prozesu hau pribilegiotzat jo da, baina pribilegio hau konstituzionala da, horrela aldarrikatu baitzuen 110/1993ko sententziak. Honen esanetan, abokatu eta prokuradoreen lana justizia sistemarako garrantzitsua denez, eta hauek sistemaren funtzionamendu egokiaren alde lan egiten dutenez, azken honek haien zerbitzuak bermatu behar ditu.

### XVII. Administrazioa alderdi bezaLA

Gaitasun prozesalaren inguruan hitz egin dugunean, pertsona juridiko publikoek jardun gara. Alabaina, Administrazio Publikoak prozesu zibilean duen parte hartzeak arreta berezia eskatzen du. Izan ere, hauek ez dituzte erakunde pribatuen eskubide berdinak, zenbait pribilegio prozesalez gozaten baitute. Beraz, alderdi izateko edo jarduteko aukera dute eta gainera zenbait pribilegio dituzte. Pribilegio hauek edukitzeren arrazoia edo justifikazioa administrazioa guztiok garela da, hau da, administrazio herritar guztiek osatzen dugula. Estatuak dituen pribilegioak 52/1997 legean aurreikusten dira eta Autonomia Erkidego eta udalerriei ere bermatzen zaie. Pribilegioa horiek baina, zeintzuk dira? Zein eskubide gehigarriez gozaten dute Estatuaren Administrazio publikoek?

- Lehenik eta behin, eskuduntza lurraldetarra dute, hau da, estatuarekin dauden epaiketak beti probintzia hiriburuetan emango dira, ez dira udalerrietan burutuko.
- Gainera, Estatuak bere interesak defendatzeko, estatuko abokatuak ditu. Estatuari jakinarazpenak eta komunikazio egintzak zuzenean estatuko abokatuari egingo zaizkio. Abokatu eta prokuradore lanak burutzen dituzte eta ez dute kolegiatuta egon behar. Aipatzekoa da, administrazioarekin gatazka zibil bat zegoenean, lehen administrazio bideak agortzea eskatzen zela baina egun ez dela hori galdatzen.
- Bestetik, Administrazioarekin adiskidetze egintza burutzeko eskaerak ez dira izapidetzera onartzen, hark interes publikoa babesten duelako aitzakiarean.
- Halaber, Administrazioak bere kontrako epaiketa zibil baten berri duenean, ezer baino lehen, prozesuaren esekitzea eska dezake, aurrekariak eskatzeko eta zerbitzu juridikoari kontsultak egiteko. Prozesua 15-30 egun bitartean eseki daiteke, hala ere, kasua larria bada, 6-10 egunetan esekiko da.
- Orobat, ez dituzte egin behar lege prozesalean ezarritako kontsigna, kauzio edo bermeak eta kostuen kondena badago eta hori estatuaren aldekoa bada, honi ematen zaion dirua guztiontzat izango da eta Ogasunera kargatuko da. Alderantziz, estatua kondenatzen den kasuetan, diru hori ere Ogasunetik aterako da.
- Azkenik, kontuan hartu behar dugu Espainian debekatuta dagoela ondasun publikoak enbargatzea eta beraz, ez dagoela benetako nahitaezko edo nahitaezko betearazpenik.



Aipatutako pribilegioak Estatuarenak dira, baina Autonomia Estatuak ere berdinak izan ditzakete. Kantabria edo Kanariar Uharteak bezalako autonomia batzuk espresuki jasotzen dituzten arren, gainerakoek ere berdinak dituzte. Erkidego Autonomoek beste pribilegio bat dute. Kasu konkreturako abokatu pribatuak kontratatu ditzakete ordezkatu edo defenda ditzaten. Udalerriek ere pribilegio berdinak izango dituzte.

## XVIII. Ministerio fiskala prozesu zibilean

### 18.1. Kontzeptua eta ezaugarriak

Jakin dakigunez, EKaren 124.artikuluaren aurrekustean da, Ministerio Fiskala estatuak epaileari justizia egiten laguntzeko gorputz juridikoa dela. Justizia egiten laguntzen du eta bere akzioa sustatzen du, legezotasuna, herritarren eskubideak eta interes publikoa defendatzeko.

Ministerio fiskalak prozesu zibilean parte hartu ahal du, nahiz eta arau orokor moduan, ez den hartan aritzen. Salbuespen moduan baina aritu daiteke. Arau orokor moduan, fiskaltza zigor prozesuarekin lotu behar dugu. Izan ere, prozesu zibilean, interes pribatuaren eremuan, xedapen printzipioa nagusitzen da, eta beraz, ez dago fiskaltzarentzako leku edo betarik. Zigor prozesuan aldiz, beharizan printzipioa aplikatzen da, haatik haren parte hartzearen beharra dago, Ministerio Fiskala espainiar guztien interesen defentsan jardungo delako epaileek *ius puniendi*-a aplikatzen dutenean.

### 1821. Prozesu zibilean parte hartzea

**a**

Ministerio Fiskala prozesu zibilean alderdi gisa, legezko ordezkari bezala eta diktaminatzailetza gisa jardun daiteke. Jarraian, kasu horiek banan-banan aztertuko ditugu.

Lehenik eta behin, alderdi gisa parte har dezake, demandatzaile edo demandatu moduan. Kontuan hartu behar dugu, alderdi berezi bat izango dela, bere interesa ez baita pribatua izango, publikoa baizik. Normalean demandatzaile gisa jardungo du, espainiar guztien interesen defentsan. Ezin ditu zuzenbide materialaren egintza xedagarriak (uko egitea, amore ematea) burutu, bai ordea, prozesuarekin lotutakoak (atzera egitea).

Gainera, bere parte hartzea, lege batek horretarako legitimazioa ematen dionaren arabera izango da. Hori adierazita, PZLko 749. artikuluan Ministerio Fiskalari legitimotasuna ematen zaio alderdi aktibo eta pasibo bezala hurrengo kasuetan: Ezkontza deuseztapenean, ezgaitasun prozeduretan eta tutore bat bere kargutik kentzeko prozesuetan. Bestetik, legitimotasun pasiboa izango du bakarrik, hau da, demandatu bezala jardungo du, aurrekoez gain, ohorea, intimitatea, irudia, konkurtso kalifikazioan, Erregistro Zibileko idazpenekin lotutakoetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes kolektiboaren prozesuetan...

Bigarrenik, legezko ordezkari bezala jardun dezake. Gai honetan ikasi bezalaxe, PZLaren 8. artikulua araberak, inor ezin da babesgabezia aritu epai batean; modu horretan, absenteen, adingabeen eta ezgaien izenean Ministerio Fiskala arituko da.



## I. Irakasgaiak

Hirugarrenik, irizpenak emanen dituen pertsona gisa edo txosten emaile gisa jardun dezake. Ministerio Fiskalaren irizpenak zuzenbide materialaren edo zuzenbide prozesalaren ingurukoak izan daitezke. Zuzenbide materialari dagokionez, konkurtsoa kalifikatzeko, atzerritar sententziak exekutatzeko eta berrikuste helegitearen onespenean, esaterako, Ministerio Fiskalaren parte hartzea aurreikusten da. Zuzenbide prozesalaren arloan aldiz, esaterako, Epailen aurrean egikaritzen dugun eskubide nagusia EK 24. artikulua da eta epaitegi batek eskumenik ez duela uste denean, epaileak kasua ezagutu aurretik, fiskaltza entzun behar du. Beste kasu batzuetan, adopzioen aldeko txotena eman behar du fiskaltzak, edota ezkontzetan (atzerritarrekin ezkontzen denean bereziki).